



ERANSKINA

DEIALDIA 2021eko UDAKO IKASTAROAK (uztaila/ abuztua/ iraila)

1.- Parte har dezaketenak

AZPko langileek zeinek IVAPeko baldintza hau betetzen duten:

Udako ikastaro bat eskatu ahal izateko, **aldez aurretik IVAPeko deialdien bidez ikastaroren bat egina izan behar du interesdunak** eta, beraz, ikasprozesua hasia.

Aldi baterako langileek **ikastaroak dirauen bitartean unibertsitatearekin lan-hitzarmena** dutela egiaztatu beharko dute.

2.- Udako ikastaroek bete beharreko baldintzak

Ikastaroak **HABEk araututako ikastaro modulua** izan behar du.

Ikastaroak, **euskaltegi publiko edo pribatu homologatuek edo autoikaskuntza zentroek** eman behar dituzte.

Aurrez aurreko ikastaroek **gutxienez 80 ordukoak** izan behar dute.

Autoikaskuntza bidezko ikastaroek **gutxienez 70 ordukoak** izan behar dute.

Matrikula-orrien bidez finantzatuko diren **ikastaroak** hauexek dira:

| | Lanorduetan | Lanorduz kanpo |
|---------------------------|-------------|----------------|
| *Aurrez aurreko ikastaroa | BAI | BAI |
| *Autoikaskuntza ikastaroa | EZ | BAI |

***Aurrez aurreko ikastaroak:** aurrez aurrekoak, aurrez aurreko telematikoak edota eskola batzuk aurrez aurre eta beste batzuk telematikoak. Baliabidea edozein dela ere, irakasleak eta ikasleak ordutegi zehatz bat bete behar dute elkarreraginean, hau da, eskola 08:00etatik 10:00etara baldin bada, bi ordu horietan elkarreraginean egongo dira, aurrez aurre zein bideokonferentziaz. Ikasle batzuk ikasgelan gotea eta beste batzuk urrutitik jarraitzea ere gerta liteke.

***Autoikaskuntza ikastaroak:** Euskaltegiek zein autoikaskuntza zentroek berariaz lineako ikastaroak emateko dituzten programen bidez ikastea. Nahiz eta tarteka tutoretza edo mintza saioak izan, oro har, lan gehiena bakoitzak bere kasa antolatzen du, programa horiek bakarka eta zehaztutako ordutegirik gabe erabilia.

3.- Ikastaroen helburuak

Ikasleek ikasturtean zehar egindakoa finkatu eta sendotzeko helburuz eskaintzen ditu IVAPek udako ikastaroak, eta, datorren ikasturtera begira (2021/2022), ez da kontuan hartuko udako ikastaroan langileak egin duen urratsa, baizik eta 2020/2021 ikasturte honetan gainditu duen azken urratsa edo aurrekoak.



4.- Eskaerak

Interesatu bakoitzak, **gehienez ere, hiru ikastaro** eska ditzake.

Derrigorrez, eskaera guztiak UPV/EHUko Egoitza Elektronikoaren bidez edo UPV/EHUko Erregistro Orokorraren bidez aurkeztu behar dira; edo, hala badagokio, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikulua ezarritakoaren arabera. Erregistroan zigitutako eskaeraren kopia bat posta elektronikoa honetara bidaliko da euskara-plangintza@ehu.eus.

Nagusiaren oniritzia behar da ikastaroa **lanorduetan** egingo bada. **Baimenik ez** badauka langileak, **nagusiek txosten arrazoitua bidali** beharko dute erreklamazio epean (**maiatzaren 20, 21, 24an**) Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzara, eta postaz aurreratu euskara-plangintza@ehu.eus helbide elektronikora.

Ikastaro trinkoa langilearen oporraldian egiteko izan ez gero, ez da nagusiaren baimenik behar.

Ikastaro hauek egingo dituzten langileak ez dira inolaz ere euren lanpostuetan ordezkatuak izango.

5.- Epeak:

- Eskaerak aurkezteko epea: **apirilaren 28tik maiatzaren 17ra** bitartean (**biak barne**). Langileak eskariak egiteko azken eguna helduta ez badu nagusiaren baimenik lortu, erreklamazioak egiteko epean aurkeztu ahal izango du baimen hori. Baina eskaria bera, sinadura gabe, epe barruan bidali beharko du.
- Behin-behineko zerrendak: **maiatzaren 19an** argitaratuko dira **ehutaletan** eta errektoreordetzako webgunean.
- Erreklamazioak egiteko epea: **maiatzaren 20, 21 eta 24an**. Hori berori izango da nagusien txostenak aurkezteko epea ere, dagokien kasuetan (baimena ematen ez dutenean).
- **Ekainaren 2tik aurrera** behin betiko zerrendak argitaratuko dira (Euskalduntze Batzordea bildu ostean) eta IVAPera bidaliko dira.

6.- Udako ikastaroen antolamendua

Baldintzak betetzen ez dituzten eskaeren kasuan, IVAPek ukatu egingo ditu eta unibertsitateari jakinaraziko dio, honek interesatuari horren berri emateko, arrazoiak zehaztuz.

Baldintzak betetzen dituzten eskaeren kasuan, IVAPek langileentzako **matrikula orri pertsonalizatuak** bidaliko ditu Unibertsitateari (ekainaren bukaeran). Interesatuak eurak matrikulatuko dira aukeratzen duten ikastaroan; horretarako, matrikula orria aurkeztu beharko dute euskaltegian edo autoikaskuntzan zentroan.

Langilea **inon matrikulatzen ez bada, ahalik eta lasterren itzuli beharko du matrikula orria** Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzara.

Matrikula orria itzultzea ezinezkoa gertatuz gero, galdu edo apurtu delako, langileak, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzan idatziz jakinarazi beharko dio ez dela inon matrikulatu.



7.- Euskaltegien eskaintza:

Euskaltegi bakoitzak bere eskaintza berezitua egiten du: egutegiak, iraupena, ikasgelak, etab. Tokiari dagokionez, ikastaro batzuk euskaltegietan ematen dira eta beste batzuk, aldiz, bestelako etxe edo herrietan. Horregatik langileak eskaera Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzan aurkeztu aurretik, euskaltegi/barnetegira deitu beharko du aukeratutako ikastaroaren datak egiaztatu eta ziurtatzeko. **Oraindik HABEk eta AEEKak egiten duen eskaintza argitaratu edo zehaztu gabe badago, gutxi-gorabeherakoa jarri beharko du eskatzaileak eskari-orrian, gero aldaketa txikiren bat egon arren.**

8.- Ordu-kreditua udako ikastaroetan.

Ordu-kredituari dagokionez, Lankidetzaz Hitzarmena arautzen duen 2005eko azaroaren 30eko Aginduari jarraituko zaio. Ondorioz, **Udako ikastaroetan emandako orduak gastatu egiten dute langilearen ordu-kredituaren saldoa.** Horretarako, ikaslearen taldean lehenengo klase egunetik hasita eta ikastaroa amaitu arte emandako eskola-orduak zenbatuko dira. Langileak kontuan hartu beharko du hori datorren 2021-2022 ikasturterako, bere ordu-kreditua positiboa izan behar baita ikasturte hasieran.

Udako euskara ikastaroa hasi ahal izateko, beharrezkoa izango da 2020-2021 ikasturtearen hasieran ordu-kredituaren saldoa aldekoa izana. Modu honetan aplikatuko da:

- **2020-2021 ikasturtea urrian** hasi zuten ikasleei ikasturtea hasi aurretik aplikatu zitzaizkien ordu-kredituaren kontrola; beraz, udako deialdian ez zaie berriro aplikatuko. Ondorioz, ikasturtea urrian hasi zuten ikasleek udako deialdian parte hartu ahal izango dute nahiz eta udako eskaera egiten dutenean ordu-kreditu negatiboa izan. Edozelan ere, udako ikastaroetan emandako orduak ordu-kreditutik kenduko dira, ikasturtean zehar emandako gainerakoak bezalaxe.
- **2020-2021 ikasturtea otsailean** hasi zuten ikasleei goiko paragrafoan azaldutako printzipioak aplikatuko zaizkie.
- Azkenik, (2020-2021 ikasturtean matrikulatuta egon ez direnak) baina 2020ko udako ikastaroa hasiko duten ikasleei, eskaera IVAPen hartzen denean aplikatuko zaie ordu-kredituaren kontrola, eta saldo negatiboa dutenek ezin izango dute udako ikastaroa egin. Hau da, ikasle horiek udako ikastaroa egin ahal izateko, aldeko saldoa izan beharko dute; bestela, IVAPek bazter utziko du eskaera. Aurreko kasuetan bezala, udako ikastaroetan emandako orduak ordu-kreditutik kenduko zaizkie.

9.- Matrikularen ordainketa

Langileek ez dute matrikularik ordaindu behar. IVAPek hartuko du bere gain ikastaroen matrikularen ordainketa; barnetegien kasuan, baita ostatua eta mantenua ere. IVAPek ez du bere gain hartuko bestelako gasturik, hala nola, joan-etorriak edo materialak.



10.- Ikasleei buruzko informazioa eta datuen babesa

Euskara ikastaroa kudeatu ahal izateko ezinbestekoa da ikasleei buruzko hainbat datu pertsonal jasotzea, tratatzea, fitxategi batean biltzea eta dagokion sailari lagatzea. Horrela, IVAPEk lanorduetan nahiz lanorduz kanpo ari diren ikasleen asistentzia eta ebaluazio datuak jasoko ditu, eta erakunde bakoitzari bere ikasleei dagozkienak jakinaraziko dizkio.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra); Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, eta datuak babesteari buruz indarrean dagoen gainerako araudia betez, jakinarazten da izaera pertsonaleko datuak «EAEko administrazio publikoetako langileen euskalduntzea» izeneko tratamendu-jardueran sartuko direla. Tratamendu horren helburua izango da EAEko administrazio publikoetako langileen hizkuntza-gaikuntzako ikastaroak kudeatzea eta ebaluatzea, eta, hala badagokio, programatzea eta bertaratzea gestionatzea, bai eta hizkuntza-gaikuntzagatik esleitutako ordu-kreditua kudeatzea ere.

Tratamendu horren arduraduna Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Zuzendaritza izango da, eta haren aurrean, edo Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Datuak Babesteko Ordezkariaren aurrean, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, transferitzeko, mugatzeko, aurka egiteko eta errebokatze eskubideak baliatu ahal izango dira, baita aplikatu beharreko araudiak aurrez ikusitako beste edozein eskubide ere.

Deialdi honetan parte hartzen duten pertsonen buruzko datuak EAEko langileen arloan eskumena duten erakundeei jakinaraziko zaizkie (bertaratzeari eta ebaluazioari buruzko informazioa); Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari, normalizazio-planaren betetze mailari buruzko ebaluazio-txostena egiteko (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 6. artikulua); eta HABEri - Helduen Alfabetatze eta

Berreuskalduntzerako Erakundeari - (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren seigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa betez). Datuak ez zaizkie hirugarrenei jakinaraziko, legeak kontrakoa agintzen ez badu.

Datuak babesteari buruzko informazio gehigarri eta xehatua hemen kontsultatu dezakezu:

https://www.euskadi.eus/tratamendu-jardueren-erregistroa-tje/web01-aprat/eu/eu/contenidos/informacion/rat/eu_def/adjuntos/0215_eu.html